

MOZIOA

Migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzeko Herri Ekimen Legegilerako

Tolosako Udaltzakerak, honako hau adierazten du:

- #RegularizacionYa mugimenduak Tolosako Udaltzakeraren babesa eskatu du Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzeko Herri Ekimen Legegilerako.
- Azken kalkuluen arabera, Espainiar estatuan 500.000 migratzaile inguru biziko lirateke administrazio-egoera irregularrean, eta horietatik heren bat adingabeak izango lirateke.
- Atzerritarrek Espainiar estatuan dituzten eskubide eta askatasunei edo haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan egoitza-baimena lortzeko ezarritako irizpideak oso murriztaileak dira.
- Murrizketa horrek kalteberatasun-egoera larriak eragiten dizkie egoera hori pairatzen duten pertsoneri, haien gizarte-bazterketan eragiten duelarik.
- Gizarte-bazterketa horrek eragina du herrian eta gizarte osoan, funtsezko produkzio-sektoreen ekarpen ekonomiko, fiskal eta jasangarritasun-ekarpen handia galtzea dakar, bereziki beharrezkoa dena egungo krisi sozial eta ekonomikoaren testuinguruan.
- ELGaren ministro-bileran batean, joan den udan, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioetako ministro José Luis Escrivák adierazi zuen irregularitasun-aldi hain luzeekin, batzuetan zazpi edo zortzi urterainokoa, ekonomia informala sortzen dela, sektore askoren lan-baldintzen eta soldaten gaineko beheranzko presioa eraginez.
- Espainiar estatuko Gobernuak, 2022ko abuztuan, atzerritarrek bertan dituzten eskubide eta askatasunen edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren erreforma onartu zuen, eta erreforma horrek lan-baimenak emateko irizpideak murrizten ditu, ekonomiaren eta lanpostu duinen eta kalitatezkoen hazkuntzan eragiteko helburuarekin, baina ez dute konpontzen gaur egun egoera administratibo irregularrean bizi diren 500.000 pertsonen egoera.
- Ezohiko erregularizazioaren mekanismoa Europar Batasunean 1996tik 2008ra bitartean erabili izan da, 43 aldiz 17 estatu kideetan, horietako sei Espainiar estatuan.
- Ezohiko azken erregularizazioak Portugal eta Italian egin ziren 2020an, COVID-19ak eragindako pandemian, eta neurri horri babesa ematen dio Nazio Batuetako migratzaileen Giza Eskubideen Aldeko Kontalari Bereziak.

– Arrazoi horiek direla eta, Tolosako Udalbatzak honakoa erabakitzen du:

LEHENENGOA. #Regularización YA Mugimendua babestea, 700.000 sinadura baino gehiago behar dituen Herri Ekimen Legegilerako, Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa eskatzeko, jada Kongresuko Lan eta Gizarteratze Batzordean dagoena.

BIGARRENA. Diputatuen Kongresuan lege-proposamenaren hurrengo testu artikulatua aldatzeko eskatzea:

LEY POR LA QUE SE ESTABLECE UNA REGULARIZACIÓN EXTRAORDINARIA PARA PERSONAS EXTRANJERAS

Artículo único: modificación de la disposición transitoria primera de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social.

Se modifica la disposición transitoria primera de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social con la siguiente redacción:


"Disposición transitoria primera. Regularización de extranjeros que se encuentren en España. El Gobierno, mediante real decreto, tiene que establecer, en el plazo de 6 meses, el procedimiento para la regularización de los extranjeros que estén en el territorio español antes del día 1 de noviembre de 2021".

HIRUGARRENA. Tolosako Udalak migratzaileen eskubide eta askatasunetik eta herri eta gizarte bidezkoago, inklusiboago, anitzago eta demokratikoago baten aldeko borrokarekiko duen konpromisoa berrestea.

LAUGARRENA: Osoko Bilkuraren erabakia #RegularizacionYa Mugimenduari, Diputatuen Kongresuari eta Espainiar estatuko Gobernuari helaraztea.


Tolosan, 2023ko martxoaren

EAJ-PNV



Joseba Ormazabal Lopez

EHBildu



Ander Figuerido Zubiria